

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresaren funtsezko jarduerak honako hauek izango lirateke: arazoak konpontzea, beharrak asetzea... Jarraian banan banan azalduko ditugu.

Arazoak konpontzea: Gure negozioaren oinarria ilea ez bustitzea eta kiskurtzea da, horregatik produktu waterproof honekin arazo hori asetzen da. Bestalde, edonork ez daki orrazten haren ilea, mota ezberdinetan, eta joaten dira ileapaindegira. Han dirua ordaintzen dute haien ilea ondo egoteko, eta egunen batean euria egiten badu, produktu honek kontsumitzen badute, arazo hauek ez dute izango. Kasu horretan, guk konponbide azkarra eta eraginkorra bermatzen dugu, bakoitzaren beharrak asetzeko eta bere arazoei irtenbidea emateko.

Plataformako edo sareko plataforma: Gure kontsumitzaileei irtenbidea emateaz gain, web-orrian aurkituko dute produktua eta ileko txampua. Honek errazten die pertsona ezberdinei erosteko, adibidez, pertsona desgaitasunei, adineko pertsoneri... edo bakarrik norbaitek erosketa egin nahi badu internetetik. Une oro bakoitzari gehien gustatzen zaiona aukeratu eta eskatu ahal izango du.

Banaketa kanala: Gure enpresak etxez etxeko banaketa-zerbitzua ere badu. Hori motorren laguntzarekin egiten dugu, gure banaketa-orduak txandaka banatuz.

Web-gunearen kudeaketa: Gure aplikazioa kudeatzeko, gure lankide Leire daukagu, informatikan lizentziaduna eta modu egokian kudeatu dezakeena. Lan hau zaila izango balitz, Nahia eta Aia gure lankideen laguntza ere lortu ahal izango luke. Beste aldetik, Iraiak sortuko ditu sare sozialak, eta kudeatuko ditu.

